LAN TALDEAREN BILERA	
DATA: 2015-05-17	**BILERA ZENBAKIA: 30**
ORDUA ETA LEKUA: 19:00tan udaletxean.	
PARTEHARTZAILEAK: 5 neska eta mutil 1.	
Gonbidatua: Itsasondoko eskolako irakaslea.	

EGINDAKO LANAREN LABURPENA

LANDUTAKO GAI ORDENA
Gai ordena:

HARRERA PLANA:

1. Eskutitza bidaliko zaie 2015-2016 urteetan Itsasondon erroldatu direnei ekainaren 6ko astean eta partehartze konfirmazioa eskatuko da (Itsaso). Momentuz bi urte hauetan 45 pertsona erroldatu dira (bertan jarraitzen dutenak). Hauetatik 10 haur eta nerabeak dira. 22 pertsona jatorriz beste herrialde batekoak (Errumania, Honduras, Portugal, Argelia, Marruecos, Pakistan, Nigeria).

2. Eskuorria: prestatuta daude euskera hutsean, euskera-erdera, euskera-ingelera. Harrera bilerako egunean banatuko dira.

3. Hemendik aurrera Itsasondon erroldatzen den herritarrari zuzenean telefono kontaktua eskatuko zaio. Oraingoan asmoa hori bazen ere, ez baita egin.

4. Ekainak 21ean bileran parte hartuko duten partaideak (ongizate lantaldeak adostuta): Ongizateko zinegotzia edo alkatea, liburutegi eta gazte lokaleko arduraduna den teknikaria, gizarte langilea, eskolako irakasleak (beraiek ere prest agertu dira), euskara taldeko kideren bat eta guraso elkarteko herritarren bat. Azken bi talde hauei partehartzea eskatuko zaie (Rut eta Jabi).

SAREAN:

Udaleko beheko solairuan, egutegi handi bat jartzearen ideia planteatu da. Egutegia bi hilabeteetakoa izango da eta bertan bai udaleko baita herriko beste talde zein eragileren ekintza guztiak isladatzea pentsatu da. Egutegiaren ondoan, ekintza bakoitza antolatzeko dauden beharrak edo eskaerak ere azalduko lirateke. Tresna honek Itsasondoko herritarren bistan herriko mugimendu eta ekintza guztiak egotea ahalbidetuko luke, talde bakoitza bere ekintzak idazteaz arduratuko zelarik. Bestetik herriko ekintzak bateratu eta elkargunea lortuko litzateke modu praktiko batean. Ongizate Lantaldeko kideak ados agertu dira tresna hau martxan jartzeko ideiarekin.

Hasera batean Ongizate Lantaldeko kide diren Haizea eta Maider, udaleko eta herriko talde eta eragile guztiekin bilduko dira ideiaren berri eman eta tresna martxan jartzeko (maiatza/ekaina). Gainerako herritarrek tresna nola baloratzen duten ikusi eta forma emango zaio. Ekaina bukaeran edo uztailaren hasieran, egutegia prest izatea aurreikusten da.

Sensibilizazio kanpaina nola hasi denboraren bankua martxan jarri aurretik.
Denboraren bankuaren inguruan sensibilizazioa beharrezkoa ikusten den arren, hau lantzeko eta abian jartzeko zailtasunak ikusten dira. Ideia honi buelta bat eman eta mugimendu hau modu oso sinple batean hastea erabaki da lantaldean. Panel bat jarriko da, adibide argi batekin herritarrak zertarako den ulertu dezan. Horrela denboraren bankua sinpleki eta herritarren eskaeren arabera mugituko da. Herritarren nondik norakoak aztertu ondoren, interesa eta beharra ikusten bada, berriro planteatuko da ongizate lantaldean sensibilizazioa edo bestelako eskuhartzeren bat egiteko beharra.

MIKROMATXISMOAK:
Emagin elkartearekin jarri dira harremanetan Ongizate Lantaldeko kide bi. Gaia lantzeko haurrak adin tarte ezberdinetan banatzeko beharra aipatu dute (7-9 eta 10-12). Eskolako hezkidetza programa ere eskatu dute, honen araberako saio osagarria txertatzeko.
Lantaldean gazteekin gaia lantzeko beharra ere aipatu da eta hortarako Ainararekin harremanetan jartzea erabaki da (Leire eta Marijo). Hemen autonomia eta emanzipazioa lantzeko tailerrak aipatu dira (elektrizista, mekanika, sukaldaritza...)
Azkenik, Emagin taldearekin haurrek lantzen dutena, haur hauen gurasoekin ere lantzea oso interesgarria izango zela aipatu da. hau egin ahal izateko aukerak Emagin taldearekin argituko dira (Leire eta Marijo).
Saioa Irailean antolatzekotan geratu gara.

2.0 ALDIZKARIA:
Elkarrizketatuak izan daitezkeenen zerrenda jasotzea zen bilerako helburua. Izen batzuk jaso diren arren, Jabi geratu da zerrenda osatzeko arduradun.
SIRIAR ERREFUXIATUEI LAGUNTZEKO IDEIAK JASOTZEA.
Maiderrek galdetuko die hortan lanean ari den taldeari eta komentatuko du hurrengo hileko bileran.

FESTAK (BOKATA JANA):
Uztaileko bileran antolatu eta banatuko dira ardurak.

MEMORIA TAILERRA (ITZULTZAILE LANA):
Maiatzak 24 eta 31an izango diren memoria tailerrerako itzultzaile lanetan aritzeko pertsona bat behar da eta ongizate lantaldean partehartzaileren bati hori egiteko eskatzea pentsatu da. Taller hauez gain, urtean zehar tailer gehiago egiteko bolondresak bilatzeko aukeraz hitz egin da eta kasu honetan ere, jubilatu elkarteko kideren bat edo eta memoriarekin arazoak dituenen familiarteko bat izan daitekeela aipatu da. AFAGI fundaziotik ariketen liburuxka uzteko prest azaldu dira.

UDALEKU IREKIAK:
Aurreko urteko festatako bokata janetik atera zen diruarekin, behar bereziak dituzten haurren

udaleku irekiak ordainduko dira. Gizarte Langileak artuko du honen ardura.

ERRAUSGAILUA:

Errausgailuaren inguruko artikuloarekin lotuz, Koro herriko medikuarekin hitzaldia lotzen saiatuko gara (gizarte langilea).

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
Eskutitza bidali harrera plana	Ekainak 6	Gizarte langilea
Guraso elkartetik kidea lortu harrera planerako	Ekaina	RUt
Euskara taldetik kidea lortu harrera planerako	Ekaina	Jabi
Sarean martxan jarri (bilerak eragile ezberdinekin)	Maiatza/Ekaina	Maider/Haizea
Denboraren Bankua tresna jarri	Ekaina	Maider/Haizea
Mikromatxismoak (saioak lotu irailerako eta ainararekin hitz egin gazteen egoeraz)	Iraila	Leire/Marijo
2.0 aldizkaria zerrenda osatu	Ekaina	Jabi
Siriar errefuxiatuei laguntzeko ideiak	Ekaina	Maider

HURRENGO BILERA

Hurrengo bilera,Ekainaren 14an egingo dugu, asteartea arratsaldeko 7tan Udaletxean.
Gai ordena:
- Maiatzeko bileran adostutako etxeko lanak errepasatu.